La Presidencia del Colegio y los demás cargos de la Junta de Gobierno se proveerán por elección en la que participarán todos los colegiados titulares.

*Artículo 22.–* Derecho de sufragio activo.

Tienen derecho de sufragio activo todos los colegiados que en encuentren al corriente de sus obligaciones económicas con el Colegio y en pleno ejercicio de sus derechos.

*23. artikulua.–* Hauteskundeen deialdia.

Hauteskundeen deialdia Gobernu Batzordeari dagokio, eta gutxienez bi hilabeteko aurretiaz egingo du.

*24. artikulua.–* Hauteskunde-mahaia.

Hauteskunde-mahaia hiru kidek osatuko dute; hauek ezin izango dira hauteskunde horietan aurkeztu, eta Gobernu Batzordeak elkargoko kide titularren artean egindako zozketan izango dira aukeratuak. Hauteskunde-mahaiko lehendakaria antzinatasun handiena duen kide titularra izango da.

Hauteskunde-batzordeko kide bakoitzeko ordezkoa egongo da. Idazkaria antzinakotasun gutxien duena izango da.

*25. artikulua.–* Kandidaturak.

Gobernu Batzordeko karguetarako hautagaien zerrendak zarratuak eta osoak izango dira, eta zerrenda bakoitza gutxienez hogei bozemailek abalatuko du. Baliozkoak izango dira hautagaien sinadurak. Ezein elkargokidek ezin izango dute bere izena kargu bat baino gehiagora aurkeztu.

Hautagagaien zerrendak ahal izango dira aurkeztu hauteskundeak deitzen direnetik hilabeteko epean.

Onartutako hauteskunde-zerrenda bakoitzak ikuskatzailea izendatzeko eskubidea izango du, botazioa eta zenbaketa kontrolatzeko.

*26. artikulua.–* Hautagaien zerrendak.

Hauteskunde-mahaiak hautagai-zerrendak aurkezteko epea bukatu ondoren hurrengo bost egunetan aldarrikatuko ditu hautagaiak.

Hautagaien zerrenda bakarra balego aldarrikatua, zerrenda horretako kide guztiak izango dira -bozketa egin barik- hautatuak; eta kide hauen kargu hartzea burutuko da.

*27. artikulua.–* Hauteskundeak egitea.

Hauteskundeak deialdian adierazten den egunean eta ordutegian egingo da, ondoren kontaketa eta emaitzen aldarrikapena egiteko.

*28. artikulua.–* Botoaren izaera.

Hauteskundeetako botoa askea, zuzena eta sekretua da; eta boto-ematea hura bera bertaratuz ala postaz egikaritzen da.

*29. artikulua.–* Posta bidezko botoa.

1.– Posta bidezko botoak hauek behar ditu: bidalketa jasota geratzea, boto-emailearen nortasuna benetakotzea, botoaren sekretua bermatzea eta boto sekretu hura hauteskunde-mahaiak botazioa amaitu baino lehenago hartuko duen bermea izatea. Posta bidezko botoa ezeztatua geratuko da, botoa ematera hura bera bertaratzen bada, kasu honetan posta bidez bidalitako gutunazala deuseztatu egingo da.

*Artículo 23.–* Convocatoria de Elecciones.

La convocatoria de elecciones corresponderá a la Junta de Gobierno que la realizará con un plazo de antelación de dos meses como mínimo.

*Artículo 24.–* Mesa Electoral.

La mesa electoral estará formada por tres miembros, que no podrán presentarse a las elecciones, que serán elegidos por sorteo realizado por la Junta de Gobierno, de entre los miembros titulares del colegio. El Presidente de la mesa electoral será el miembro titular de mayor antigüedad.

Habrá un suplente por cada miembro de la Junta Electoral. El secretario es el de menor antigüedad.

*Artículo 25.–* Candidaturas.

Las candidaturas a los cargos de la Junta de Gobierno serán cerradas y completas, y cada una de ellas deberá ser avalada por al menos veinte electores. Serán validas las firmas de los mismos candidatos. Ningún colegiado podrá presentar su candidatura para más de un cargo.

Las candidaturas podrán presentarse en el plazo de un mes desde la convocatoria de elecciones.

Cada candidatura admitida tendrá derecho a nombrar un interventor para controlar la votación y el escrutinio.

*Artículo 26.–* Listas de candidatos.

La mesa electoral procederá en los cinco días siguientes al cierre del plazo de presentación de candidatura a la proclamación de los candidatos.

En el supuesto de no resultare proclamada más que una única candidatura, se considerarán elegidos todos los miembros de esta candidatura, sin que proceda votación alguna, procediéndose a la toma de posesión de sus miembros.

*Artículo 27.–* Celebración de las elecciones.

Las elecciones se celebrarán el día y en el horario que se señale en la convocatoria, celebrándose a continuación el escrutinio y la proclamación de los resultados.

*Artículo 28.–* Carácter del voto.

El voto electoral es libre, igual, directo y secreto, y se ejercita personalmente o por correo.

*Artículo 29.–* El voto por correo.

1.– La votación por correo requiere que quede constancia del envío, que se acredite la identidad del votante, que se garantice el secreto del voto y que éste sea recibido por la mesa electoral antes de finalizar la votación. El voto por correo quedará revocado por el voto personal, en cuyo caso, el sobre enviado por correo será destruido.

2.– Posta bidezko botazioaren prozedurak baldintza hauek beteko ditu:

a) Botoa posta bidez emateko asmoa Elkargoan adierazi beharko da idatziz jasota geratzeko dauden bitartekoen bitartez, hauteskunde eguna baino lehenago aste beteko aurrerapenaz. Gertakari hau hauteskundearen zerrendan idaztoharra egingo da.

b) Elkargoko idazkariak boto-emaileari emango dizkio: nortasuna benetakotzeko agiria, eta botoen txartelak hauek bidaltzeko gutunekin batera.

c) Boto-emaileak posta ziurtatu bidez bidaliko du botoa nortasuna benetakotzeko agiriarekin.

d) Elkargoak ahal izango du etorkizunean botoa informatikako bideetatik arautu.

*30. artikulua.–* Boto baliogabea.

Baliogabeak izango dira ofiziala ez den ereduan emandako botoak edo boto-aukeraren zentzua argi ikustea zaildu egiten duten gehiketak, zuzenketak, edo aldaketak dituztenak.

*31. artikulua.–* Zenbaketa eta emaitzen aldarrikapena.

Botazioa amaitu ondoren, hauteskunde-mahaiak botoak zenbatuko ditu berehala. Botoak zenbatu ondoren, boto gehien lortu duen zerrenda aldarrikatuko du. Ikuskatzaileek zein hautagaiek ahal izango dute boto-txartelen zenbaketa aztertu.

Jarraian, emaitzaren akta egingo da eta hauteskunde-mahaiko lehendakariak emaitzak plazaratuko ditu interesa duten pertsonei, boto-kopuru gehien lortu duten hautagaiak aukeratuak izan direla aldarrikatuz.

Karguren batean ez bada inor aurkeztu, lehengo titularraren mandatua luzatuko da.

*32. artikulua.–* Erreklamazioak.

Hauteskundeengatik erreklamazioak jarri ahal izango dira hauteskunde-mahaiaren aurrean, hauteskundearen emaitzak argitaratu zirenetik hogei eguneko epean.

*33. artikulua.–* Kargu-hartzea.

Gobernu Batzorde aukeratuak karguak eskuratuko ditu bere aldarrikapen osteko hurrengo hamar egun naturaletan.

*34. artikulua.–* Zentsura-mozioa.

Ahal izango da Gobernu Batzordeari buruzko zentsura-mozioa aurkeztu, boto eskubidea duten elkargokideen ehuneko hamarrek eskatuta; eta aurkeztu zenetik hilabeteko epean hartarako deitutako Batzar Orokorrean eztabaidatua eta bozkatua izango da.

2.– El procedimiento de votación por correo cumplirá los siguientes requisitos:

a) la intención de voto por correo será anunciada en el Colegio por alguno de los medios por los que quede constancia escrita, con antelación de una semana al día de celebración de las elecciones. Este hecho será anotado en la lista electoral.

b) La Secretaria del Colegio facilitará al elector una acreditación personal y las papeletas de voto con los sobres de envío.

c) El elector remitirá por correo certificado el voto con la acreditación personal.

d) El Colegio podrá en un futuro regular el voto por los medios informáticos.

*Artículo 30.–* Votos nulos.

Serán nulos los votos emitidos en un modelo diferente al oficial o que tengan adiciones, enmiendas o alteraciones que dificulten ver con claridad el sentido de la elección.

*Artículo 31.–* Escrutinio y proclamación de resultados.

Finalizada la votación, la mesa electoral procederá al inmediato escrutinio de los votos. Una vez contados los votos se proclamará la lista que haya obtenido el mayor número. Tanto los interventores como los candidatos podrán examinar el escrutinio de las papeletas.

A continuación, se levantará acta del resultado y el Presidente de la mesa electoral hará públicos los resultados a las personas interesadas, proclamando elegidos a los candidatos que hayan obtenido mayor número de votos.

En caso de que para algún cargo no se presente ningún candidato quedará prorrogado el mandato del anterior titular.

*Artículo 32.–* Reclamaciones.

Las reclamaciones por las elecciones se realizaran ante la mesa electoral en el plazo de veinte días de la publicación de los resultados electorales.

*Artículo 33.–* Toma de posesión.

La Junta de Gobierno electa tomará posesión el plazo de diez días naturales posteriores a su proclamación.

*Artículo 34.–* Moción de Censura.

A solicitud de diez por ciento del número de colegiados con derecho a voto, podrá presentarse una moción de censura sobre la Junta de Gobierno, que será debatida y votada en una Asamblea General extraordinaria convocada al efecto en un plazo de al mes de su presentación.

VI. KAPITULUA
EKONOMI-ARAUBIDEA

*35. artikulua.–* Baliabide ekonomikoak.

1.– Elkargoaren ohiko baliabideak dira:

a) Elkargoaren ondarea osatzen duten ondasunek eta eskubideek ematen dituzten edozein izaerako etekinak.

b) Elkargoan sartzeko eskubideak.

c) Txostenak, irizpenak, peritutzak, azterlanak, eta Elkargoak egin ditzakeen beste edozein aholkularitza teknikoak.

d) Elkargoak ezar ditzakeen ohiko zein aparteko kuoten eta derramen zenbatekoa.

e) Argitalpenak egiteagatik eta Elkargoak eman ditzakeen ikastaroengatik lor daitezkeen irabaziak.

f) Legez bidezkoa den beste edozein kontzeptu.

g) Euskal Herriko Aktuarioen Elkargoaren paper ofizialaren salmenta.

2.– Ezohiko baliabideak dira:

a) Dirulaguntzak, dohaintzak, jaraunspenak eta legatuak, Elkargoa onuraduna denean, beti eman izan den helburua betez.

b) Bere ondarearen ondasunen besterenganaketaren etekina.

c) Legezkoa den beste edozein kontzeptu.

d) Kide babesleen emariak.

*36. artikulua.–* Elkargoaren ondarearen administrazioa.

Elkargoaren ondarea Gobernu Batzordeak administratuko du. Lehendakariak ordainketen agindu-emailearen funtzioei eragongo dizkie, eta bere aginduak Diruzainak beteko ditu.

*37. artikulua.–* Elkargoaren aurrekontua.

Euskal Herriko Aktuarioen Elkargoaren ekonomia araubidea aurekontuzkoa da; bakarra izango da; eta sarrera, gastu eta inbertsio guztiak izango ditu barnean.

*38. artikulua.–* Elkargoko kontuen Auditoria.

Elkargoko urteko kontuak kanpoko auditoretzaren menpean jarriko dira. Kontuak onartzera plazaratzen den Batzar Orokorreko Bilerara auditoreen txostena zein auditoreen oroit-idazkia eramango dira.

CAPÍTULO VI
RÉGIMEN ECONÓMICO

*Artículo 35.–* Recursos económicos.

1.– Constituyen recursos ordinarios del Colegio:

a) Los rendimientos de cualquier naturaleza que produzcan los bienes y derechos que integran el patrimonio del Colegio.

b) Los derechos de incorporación del Colegio.

c) Los ingresos procedentes de la elaboración de informes, dictámenes, peritajes, estudios y cualquier otros asesoramientos técnicos que se emitan por el Colegio.

d) El importe de las cuotas, tanto ordinarias como extraordinarias, derramas que establezca el Colegio.

e) Los beneficios que se obtengan por la elaboración de publicaciones y por los cursos que se proporcionen por el Colegio.

f) Cualquier otro concepto que legalmente procediere.

g) La venta de papel oficial del Colegio de Actuarios del País Vasco.

2.– Constituyen los recursos extraordinarios:

a) Las subvenciones, donativos, herencias o legados de los que el Colegio pueda ser beneficiario, siempre respetando la finalidad para las que fueron otorgadas.

b) El producto de la enajenación de los bienes de su patrimonio.

c) Cualquier otro concepto que legalmente proceda,

d) Aportaciones de los miembros protectores.

*Artículo 36.–* Administración del patrimonio del colegio.

El patrimonio del Colegio será administrado por la Junta de Gobierno. El Presidente ejercitará las funciones de ordenador de pagos, cuyas órdenes serán ejecutadas por el Tesorero.

*Artículo 37.–* Presupuesto del colegio.

El régimen económico del Colegio de Actuarios del País Vasco es presupuestario, que será único y comprenderá la totalidad de ingresos, gastos e inversiones del ejercicio.

*Artículo 38.–* Auditoria de las cuentas colegiales.

Las cuentas anuales del colegio deberán ser sometidas a una auditoria externa. En la Junta de la Asamblea General en que se presenten a aprobación las cuentas, se aportará tanto el informe como la memoria elaborada por los auditores.

VII. KAPITULUA
ELKARGOKO LANGILEAK

*39. artikulua.–* Kontratazioa.

Gobernu Batzordeak Elkargoaren funtzionamendu onerako behar diren langileak kontratatuko ditu eta hauei egin behar dituzten funtzioak esleituko dizkie.

VIII. KAPITULUA
DIZIPLINA-ARAUBIDEA

*40. artikulua.–* Diziplina-funtzioa.

Profesional kolegiatuek diziplina-erantzukizunaren menpean geratzen dira euren lanbidearen betebeharretan arau-haustea egitekotan.

Diziplinazko ahalmenak Elkargoko Gobernu Batzordeari dagozkio, aldez aurretik interesatua entzun ondoren espedientea bideratuz.

*41. artikulua.–* Hutsegiteen motak.

Diziplina-zigorra aldean daramaten hutsegiteak oso larriak, larriak ala arinak izan daitezke:

1.– Hutsegite oso larriak dira:

a) Lanean jardutea 18/1997 Legearen 5.1.a) artikuluan zehaztutako tituluaren jabe izan barik.

b) Lanean aritzea horretarako gaitasuna galduta duela, bateraezina zaionean edo debekatuta duenean.

c) Betebehar profesionalak ez betetzea, jarduketa profesionala eskatu edo hitzartu dutenentzat kalte larria ondorioztatzen denean.

d) Sekretu profesionala haustea.

e) Laneko arrazoiengatik egindako dolozko delituak, partehartze-maila edozein izanda ere.

f) Bi urteko epean, gutxienez bi arau-hauste larri egitea; hurrengo ataleko k letran aipatutako arau-haustea ez da horretarako kontuan hartuko.

g) Kasuaren arabera -norberaren edo bestearen kontura- lanean aritzeko ezarritako baldintzak bete barik egindako lanbide-jarduketa, bezeroarentzat kaltea sortzen denean.

h) Elkargoko betebeharrak ez betetzea: araubidezko betebeharrak zein estatutuetakoak, zein Gobernu Batzordeak hartutako erabakietakoak, Elkargoari edo beste aktuarioei edo bezeroari kalte larria sortu dionean.

2.– Hutsegite larriak dira:

a) 18/1997 Legearen 5.1.d) artikuluan xedatutakoa ez betetzea.

b) Betebehar profesionalak ez betetzea, jarduketa profesionala eskatu edo hitzartu dutenentzat kaltea ondorioztatzen denean.

CAPÍTULO VII
PERSONAL DEL COLEGIO

*Artículo 39.–* Contratación.

La Junta de Gobierno contratará el personal necesario para el buen funcionamiento del Colegio y le asignará las funciones a realizar.

CAPÍTULO VIII
RÉGIMEN DISCIPLINARIO

*Artículo 40.–* La función disciplinaria.

Los profesionales colegiados están sujetos a responsabilidad disciplinaria en el caso de infracción de sus deberes profesionales.

Las facultades disciplinarias corresponden a la Junta de Gobierno del Colegio, con la tramitación previa de expediente, con audiencia al interesado.

*Artículo 41.–* Clases de faltas.

La faltas que pueden llevar aparejada sanción disciplinaria se clasifican en muy graves, graves y leves:

1.– Son faltas muy graves las siguientes:

a) El ejercicio de la profesión sin estar en posesión del título, según establece el artículo 5.1.a) de la Ley 18/1997.

b) El ejercicio de la profesión en situación de inhabilitación profesional o incurso en causa de incompatibilidad o prohibición.

c) El incumplimiento de los deberes profesionales cuando resulte perjuicio grave para quienes soliciten o concierten la actuación profesional.

d) La vulneración del secreto profesional.

e) La comisión de delitos dolosos, en cualquier grado de participación, como consecuencia del ejercicio de la profesión.

f) La comisión de, al menos dos infracciones graves en el plazo de dos años, salvo lo dispuesto en la letra k del apartado siguiente.

g) La actuación profesional sin el cumplimiento de los requisitos establecidos según el caso para el ejercicio por cuenta propia o ajena cuando se produzca perjuicio para el cliente.

h) El incumplimiento de las obligaciones colegiales, reglamentarias o estatutarias, o de los acuerdos dictados por la Junta de Gobierno, cuando ocasionen un perjuicio grave para el Colegio, para otros actuarios, o para el cliente.

2.– Son faltas graves las siguientes:

a) La vulneración de lo dispuesto en el artículo 5.1.d) de la Ley 18/1997.

b) El incumplimiento de los deberes profesionales cuando resulte perjuicio para quienes soliciten o concierten la actuación profesional.

c) Aseguratzeko betebeharra ez betetzea.

d) Irain larriak egitea lanbide bereko profesional batzuen duintasunari zein lanbideko gobernu organoei edo laneko arrazoiengatik berarekin harremanetan diren pertsona edo erakundeei.

e) 18/1997 Legearen 13. artikuluan jasota dagoen lanbide jardunaren betebeharra ez betetzea, behar bezala eskatua izan arren zerbitzua ez emateko zergati justifikatua izan ezean.

i) Elkarlehia desleiala duten egintzak burutzea.

j) Kontseilu edo Elkargo Profesionalei nahiz barruko organoei behar bezala lan egitea eragozten dieten egintzak burutzea.

k) Bi urteko epean, gutxienez bost arau-hauste arin egitea.

l) Izenpetu dituen aktuarioak berak egin ez dituen txostenak, lanak edo irizpenak sinatzea.

m) 18/1997 legearen 11. artikuluan jasota dagoen jakinarazpen-betebeharra ez betetzea.

3.– Hutsegite arinak dira:

a) Elkargoko betebeharrak ez betetzea: araubidezko betebeharrak zein estatutuetakoak, zein Gobernu Batzordeak hartutako erabakietakoak, Elkargoari edo beste aktuarioei edo bezeroei kalterik sortu ez dionean.

b) Bezeroei zein beste aktuarioei laidoa egitea, publizitatea ez daramenean edo larria ez denean.

c) Beste batzuei lanbide-jardunean ezagututako datuen berri ematea, bezeroei zein besteei kalterik sortu ez denean.

d) Lan jarduera edo Elkargoarekin edo gainontzeko elkargo antolakuntzekin harremanak arautzen dituen beste edozein arau haustea, arau-hauste larria edo oso larria ez bada.

*42. artikulua.–* Zehapen-prozedura.

Diziplina-funtzioa Elkargoko Gobernu Batzordeari dagokio, diziplina espedientea ireki ondoren deontologia batzordea izendatuko du izapideak egiteko. Diziplina espedienteak prozedura honi eutsiko dio:

1.– Diziplina prozedura Gobernu Batzordeak hasiko du edo ofizioz, edo Elkargoko lehendakariak eskatuta, edo elkargokide batek edo legezko interesa eta benetakotua duen beste batek idazki arrazoituari jarraiki.

2.– Diziplina espedientea instruktoreak hasiko du gertaerak argitzeko jarduketak eginez, hauek beharrezkoak dira karguen pleguaren formulazioa egiteko, zein espedientea ireki zenetik bi hilabeteko luzaezinezko epean egingo da.

c) El incumplimiento del deber de aseguramiento.

d) La ofensa grave a la dignidad de otros profesionales de la misma profesión, a los órganos de gobierno o a las personas o instituciones con las que se relacione como consecuencia de su ejercicio profesional.

e) El incumplimiento del deber de ejercicio profesional al que se refiere el artículo 13 de la Ley 18/1997, salvo existencia de causa justificada que imposibilite la prestación del servicio cuando hubiere sido debidamente requerido al afecto.

i) Los actos constitutivos de competencia desleal.

j) Los actos que impidan o alteren el normal funcionamiento de los consejos o Colegios Profesionales o de sus órganos.

k) La comisión de al menos cinco faltas leves en el plazo de dos años.

l) La firma de informes, trabajos o dictámenes no efectuados por el actuario que los suscribió.

m) La vulneración del deber de comunicación dispuesto en el artículo 11 de la Ley 18/1997.

3.– Son faltas leves las siguientes:

a) El incumplimiento de las obligaciones colegiales, reglamentarias, estatutarias o profesionales, o de los acuerdos dictados por la Junta de Gobierno, cuando no ocasionen perjuicio para el Colegio, otros actuarios o los clientes.

b) La falta de respeto tanto hacia los clientes como hacia otros actuarios que no conlleve publicidad o no sea de gravedad.

c) La comunicación a terceros de datos conocidos con ocasión del ejercicio profesional, cuando no se derive de ello perjuicio alguno para el cliente o para terceras personas.

d) La vulneración de cualquier otro precepto que regule la actividad profesional o la relación con el Colegio y el resto de organizaciones colegiales, siempre que no constituya infracción grave o muy grave.

*Artículo 42.–* Procedimiento sancionador.

La función disciplinaria corresponde a la Junta de Gobierno del Colegio, que una vez abierto el expediente disciplinario nombrará una comisión deontológica para su instrucción. El expediente disciplinario se sujetará al siguiente procedimiento:

1.– El procedimiento disciplinario se iniciará por la Junta de Gobierno bien de oficio, bien a petición del Presidente del Colegio, bien mediante escrito razonado de un colegiado o de un tercero con interés legítimo y acreditado.

2.– El expediente disciplinario se iniciará con la práctica por el instructor de las actuaciones tendentes a la averiguación de los hechos y necesarias para la formulación del pliego de cargos, lo que se realizará en el improrrogable plazo de dos meses desde la apertura del expediente.

3.– Karguen plegua formulatuta interesatuari jakinaraziko zaio, hamabost eguneko epean egoki deritzon alegazioak egiteko eta, hala balegokio, garrantzitsua deritzon proba proposa dezan.

4.– Instruktorearen karguen pleguaren aurrean eta interesatuak egindako alegazioen aurrean, instruktoreak beharrezkotzat hartzen badu ahal izango du proba berriak burutu.

5.– Diziplina-espedientearen izapideak bukatu ondoren deontologia batzordeak Gobernu Batzordeari aurkeztuko dio, dagokion ebazpenaren proposamenarekin. Beti errespetatuko da organo instruktorearen eta organo zehatzailearen arteko banaketa.

6.– Gobernu Batzordeak espedientearen ebazpena emango du hiru hilabeteko epean.

*43. artikulua.*– Zehapenak.

Hauek dira hutsegiteei jarri beharko zaizkien zehapenak:

1.– Arau-hauste oso larriek ahal izango dute ondoko zehapenen bat izan:

a) Lanbidean jarduteko gaitasun barik utzi, urte bete eta egun batetik hogei urtera.

b) 3.000 eta 30.000 euro bitarteko isuna.

2.– Arau-hauste larriek ahal izango dute ondoko zehapenen bat izan:

a) Lanbidean jarduteko gaitasun barik utzi, urtea gainditzen ez duen aldi baterako.

b) 300 eta 3.000 euro bitarteko isuna.

3.– Arau-hauste arinek ahal izango dute ondoko zehapenen bat izan:

a) Ohartarazpena.

b) 300 euro gainditzen ez duen isuna.

4.– Arau-hausleak arau-haustearen ondorioz irabazi ekonomikoa lortu duenean, orduan isuna gehituko da irabazi ekonomikoaren neurketak aurreko zenbakietan aurreikusitako gehienezko muga gainditu duen zenbatasunean; gutxienez balio-neurketa horren baliokidean eta gehienez azken honen bikoitzean.

5.– Zehapenak kasuan kasuko gora-beheren arabera zehaztuko dira.

6.– Zehapen horiez gainera, beste edozein erantzukizun baldin badago, zigortuek horietaz ere erantzun beharko dute.

*44. artikulua.*– Jakinarazpena, inskripzioa, preskripzioa, eta birgaikuntzak.

Arau-hauste bakoitzak bere zehapena darama. Zehapenaren ezarpena Elkargoko Idazkaritzak jakinaraziko dio interesatuari eta Elkargoaren iragarkien taulan egongo da argitaratuta hamabost eguneko epealdian.

3.– Formulado el pliego de cargos, se dará traslado del mismo al interesado para que en el plazo de quince días realice las alegaciones que estime oportunas y, si procede, proponga la prueba que estime relevante.

4.– A la vista del pliego de cargos del instructor y de las alegaciones realizadas por el interesado, el instructor podrá si lo considera necesario practicar nuevas pruebas.

5.– Concluida la instrucción del expediente disciplinario, la comisión deontológica lo elevará a la Junta de Gobierno con la correspondiente propuesta de resolución. Se respetará siempre la separación entre el órgano instructor y el sancionador.

6.– La Junta de Gobierno procederá a dictar la resolución del expediente en el plazo de tres meses.

*Artículo 43.*– Las sanciones.

Las sanciones que se deberán imponer a las faltas son las siguientes:

1.– Las infracciones muy graves podrán ser objeto de alguna de las siguientes sanciones:

a) Inhabilitación profesional por un tiempo comprendido entre un año y un día y veinte años.

b) Multa comprendida entre 3.000 y 30.000 euros.

2.– Las infracciones graves podrán ser objeto de alguna de las siguientes sanciones:

a) inhabilitación profesional por un tiempo que no exceda de un año.

b) Multa comprendida entre 300 y 3.000 euros.

3.– las infracciones leves podrán ser objeto de alguna de las siguientes sanciones:

a) apercibimiento.

b) Multa que no exceda de 300 euros.

4.– cuando el infractor hubiere obtenido beneficio económico a consecuencia de la infracción, la multa se incrementará en la cuantía que exceda de la evaluación de dicho beneficio, económico de los límites máximos previstos en los números anteriores con un mínimo del equivalente de dicha evaluación y un máximo del doble de ésta.

5.– Las sanciones se graduaran en función de las circunstancias concurrentes en cada caso.

6.– las sanciones anteriores se entienden sin perjuicio de las responsabilidades de cualquier orden en que hubieren podido incurrir los sancionados.

*Artículo 44.*– Notificación, inscripción, prescripción y rehabilitaciones.

Cada falta conlleva su correspondiente sanción. Su imposición será notificada por la Secretaría del Colegio al interesado y publicada en el tablón de anuncios del Colegio por un período de quince días.

Zehapenak heleginkorrak izango dira Batzar Orokorraren aurrean zein indarrean dagoen araudiaren arabera dagokion Justiziako auzitegi arrunten aurrean.

Auzitegi arruntak elkargokideei jarritako zehapenak bere espediente pertsonalean jasoko dira. Era berean Elkargoak jarritako zehapenak elkargokidearen espedientean jasoko dira.

Hutsegite oso larriek hiru urteen buruan preskribituko dute, larriek bi urteen buruan, eta arinek urtebetean.

Hutsegite oso larriengatik jarritako zehapenek hiru urteen buruan preskribituko dute, hutsegite larriengatik jarritakoek bi urteen buruan, eta hutsegite arinengatik jarritakoek urtebetean. Hiru urte edo gehiagoko lanbide-ezgaikuntzen zehapenetan preskripzio-epea zehapen-aldiaren epea izango da.

Ezeztapena Gobernu Batzordeari dagokio, Deontologia Batzordearen aldez aurreko arauzko txostena jaso ondoren.

*45. artikulua.–* Lanerako gaitasuna kentzea.

Tituludun lanbide bateko arauak hausten dituenak, zigor modura lanerako gaitasuna kentzen badiote, zigorrak dirauen bitartean ezin izango du lan horretan jardun.

*46. artikulua.–* Korporazio-erabakien aurkako helegiteak.

1.– Elkargoko organoek hartutako erabaki edo ebazpen guztiak, Batzar Orokorrak hartutakoak ezik, dira heleginkorrak Elkargoaren Gobernu Batzordearen aurrean eman zirenetik hilabeteko epean.

2.– Batzar Orokorraren erabaki eta xedapenen aurka ez dago ezein korporazio-helegiterik, ihardesgarriak izanik Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioaren aurrean.

3.– Korporazio-helegiteak agortu ondoren, Elkargoaren egintza eta xedapenak ihardesgarriak izango dira Justizia auzitegien aurrean.

IX. KAPITULUA
ESTATUTUEN ERALDAKETA

*47. artikulua.–* Estatutuen eraldaketa.

Elkargo honen Estatutuen eraldaketa baldintza hauek betearaziz jarraituko da:

1.– Ekimena bai elkargokideen hogeirenari bai Gobernu Batzordeari dagokie.

2.– Eraldatzea proposatzen diren arauak, halaber euren idazkera berria, jakinarazi behar dira.

3.– Proposamena berariaz horretarako deitutako Batzar Orokorrean egon direnen gehiengo osoak onartu beharko du.

Las sanciones serán recurribles tanto ante la Asamblea General como ante los tribunales ordinarios de Justicia que correspondan según la normativa vigente.

Las sanciones que sean impuestas por los tribunales ordinarios a los colegiados se harán constar en su respectivo expediente personal. De igual forma las sanciones impuestas por el Colegio se harán constar en el expediente del colegiado.

Las infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos años y las leves al año.

Las sanciones impuestas por faltas muy graves prescribirán a los tres años, las impuestas por faltas graves a los dos años, y las impuestas por faltas leves al año. En las sanciones de inhabilitación profesional por tiempo igual o superior a tres años, el plazo de prescripción será igual al período de sanción.

La cancelación corresponde a la Junta de Gobierno, previo informe preceptivo de la Comisión de Deontología.

*Artículo 45.–* Inhabilitación profesional.

La sanción de inhabilitación impide el ejercicio profesional durante el tiempo de su duración respecto a la profesión titulada en la que se haya cometido la infracción que hubiese sido sancionada con aquella.

*Artículo 46.–* Recursos contra los acuerdos corporativos.

1.– Todos los acuerdos o resoluciones dictados por los órganos colegiales, excepto los realizados por la Asamblea General, son recurribles ante la Junta de Gobierno del Colegio en el plazo de un mes desde que fueron dictados.

2.– Contra los acuerdos y disposiciones de la Asamblea General no cabe recurso corporativo alguno, siendo impugnables ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

3.– Una vez agotados los recursos corporativos, todos los actos y disposiciones del Colegio serán impugnables ante los tribunales de justicia.

CAPÍTULO IX
REFORMA DE LOS ESTATUTOS

*Artículo 47.–* Reforma de los Estatutos.

La reforma de los Estatutos de este Colegio se seguirá cumpliendo los siguientes requisitos:

1.– La iniciativa corresponde tanto a la vigésima parte de los colegiados, como a la Junta de Gobierno.

2.– Se deberá señalar los preceptos que se propongan reformar así como su nueva redacción.

3.– La propuesta deberá ser aprobada por la mayoría absoluta de los asistentes a la Junta General convocada al efecto.

*48. artikulua.–* Prozedura.

Aurreko artikuluaren baldintzak bete ondoren, Gobernu Batzordeak hilabeteko epean deituko du Estatutak eraldatzeko Ezohiko Batzar Orokorra.

X. KAPITULUA
ELKARGOA DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

*49. artikulua.–* Araubide juridikoa.

1.– Elkargoa berak erabakita desegin ahal da, berariaz hartarako deitutako ezohiko Batzar Orokorrak erabakia hartuta. Desegitea onartzeko beharrezko da botoa Elkargoko elkargokide titularren hiru laurdenek ematea erabaki horren alde.

2.– Deuseztatzeko prozedura eta kitatze-erregimena 18/1997 Legean aurrez ikusitakoa izango da.

3.– Gobernu Batzordeak likidazioari dagozkion ahalmen guztiak erabiliko ditu kontuak Batzar Orokorrari emanez, deusestatze-legeak bestelakorik erabaki ezean.

*Artículo 48.–* Procedimiento.

Cumplidos los requisitos del artículo anterior la Junta de Gobierno convocará en el plazo de un mes Junta General Extraordinaria para la modificación de los Estatutos.

CAPÍTULO X
DISOLUCIÓN Y LIQUIDACIÓN DEL COLEGIO

*Artículo 49.–* Régimen jurídico.

1.– El Colegio podrá disolverse por decisión propia, tomada por la Asamblea General extraordinaria convocada al efecto. Para la aprobación de la disolución es preciso que voten a favor de la misma las tres cuartas partes de los miembros titulares del Colegio.

2.– El procedimiento de disolución y el régimen de liquidación serán los previstos en la Ley 18/1997.

3.– La Junta de Gobierno ejercerá todas las facultades propias de la liquidación, dando cuenta a la Junta General, salvo que la Ley de Disolución disponga otra cosa.

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

## 6332

EBAZPENA, 2007ko urriaren 22koa, Etxebizitza sailburuordearena, Birgaitze Integratuko Areetan edo Egoitza Area Degradatuetan ondare urbanizatua eta ondare eraikia birgaitzeko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren aginduz deitutako laguntzak ebazten dituena.

Aipatutako laguntzen deialdiari buruzko txostena aztertu da.

GERTAKARIAK

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko maiatzaren 2ko Aginduak birgaitze integratuko areetan edo egoitza-area degradatuetan ondare urbanizatua edo ondare eraikia birgaitzeko diru-laguntzak ematea arautzen du.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko maiatzaren 3ko Aginduan adierazten dira 2007ko maiatzaren 2ko aipatutako agindu horretan aurreikusitako laguntzak aurkezteko epea eta lekua.

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

## 6332

RESOLUCIÓN de 22 de octubre de 2007, del Viceconsejero de Vivienda, por la que se resuelven las ayudas convocadas mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, en orden a la rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado en Áreas de Rehabilitación Integrada o en Áreas Residenciales Degradadas.

Visto el expediente relativo a la convocatoria de ayudas de referencia.

Resultando que mediante de 2 de mayo de 2007, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se regulan la concesión de subvenciones para la rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado en Áreas de Rehabilitación Integrada o en Áreas Residenciales Degradadas.

Resultando que mediante Orden, de 3 de mayo de 2007, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se señala el plazo y el lugar de presentación de solicitudes de las ayudas previstas en la antedicha Orden de 2 de mayo de 2007.